

# ZURE SOTOKO ARDOA

Bertol Arrieta Kortajarena (2021eko abendua)

XIX. Café Bar Bilbao teatro laburreko saria

**Pertsonaiak:**

**Xabi:** 41 urteko gizasemea.

**Arantxa:** 42 urteko emakumea.

**Agertzen ez den pertsonaia:**

**Tabernaria**

**Espazioa:**

Gaur egungo taberna arrunt bat (barnealdea).

Espazio eszenikoan, mahai txiki bat dago, bi aulkitxorekin mahaiaren alde banatan, aurrez aurre jarrita. Kontrako aldean, tabernako barra dago, alegiazkoa izan daitekeena. Eta aldamenean ate bat, tabernako sarrera adierazten duena (hau ere alegiazkoa izan daiteke). Atearen albo batean, aterki-ontzi bat.

*Xabi tabernara sartzen da, mela-mela  
eginda. Arropa arina darama, udaberrikoa.  
Eskuarekin, blai daukan ilea harrotzen du,  
apur bat lehortzeko asmoz. Tabernako  
burrundara entzuten da, bezeroen  
elkarrizketak, barreak, katiluen eta  
edalontzien zarata. Barrara gerturatzen da.*

[XABI] - Kafesne bat, mesedez.

*Kamisetan eta galtzetan pilatutako ura  
eskuarekin kentzen ahalegintzen da. Kafesne  
bat ematen diote, eta mahai txikian  
esertzen da. Zapatak kentzen ditu, eta  
galtzerdiei tira egiten die puntatik,  
lehortu nahian, eta mahaiaren hanken  
gainean kokatzen ditu oinak. Kafesneari  
azukrea bota, eta koilaratxoarekin bueltak  
ematen dizkio. Tragotxo bat edaten du, eta  
une horretantxe emakume bat sartzen da  
atetik. Aterkia pixka bat astindu, eta  
aterki-ontzian sartzen saiatzen da. Bitarte  
horretan, urduritu egin da Xabi zeharo, eta  
arrapaladan zapatak janzten hasten da.  
Mahaitik altxatu, eta emakumearengana doa.*

[XABI] - Arantxa...? Arantxa!

[ARANTXA] - Xabi!

*Besarkada bat ematen diote elkarri.*

[XABI] Joder, Arantxa! Zer moduz?! Berdin-berdin zaude!

[ARANTXA] (*Gezurretan*) Zu ere bai!

[XABI] Hau kasualitatea! Sartu, sartu! Zer nahi duzu?

[ARANTXA] Kafesne bat.

[XABI] (*Zerbitzariari*) Barkatu. Barkatu! Kafesne bat, mesedez!

[ARANTXA] Zerbait beroa behar dut. Nondik atera da ekaitz arraio hau?

[XABI] Zu behintzat aterkiarekin harrapatu zaitu.

[ARANTXA] ¡Qué va! Txino batean erosi dut.

[XABI] Ezin dut sinistu ustekabeen harrapatu zaituela ekaitzak. Zein eta zu!

[ARANTXA] Pertsona batzuk aldatu egiten dira denborarekin...

[XABI] (*Barrez*) INOR ez da aldatzen denborarekin! Eta gutxiago gure adinean. (*Besotik heltzen dio Arantxari*).  
Joe, Arantxa, ze poza! Zer moduz zaude?! Dena ondo?!

[ARANTXA] Bai, bai. Eta zu?

[XABI] Ezin kexatu!

[ARANTXA] Aita izan zinela entzun nuen...

[XABI] Birritan!

[ARANTXA] Zorionak! Bigarrenaz ez nekien ezer...

[XABI] Oraintxe bete ditu sei hilabete! Maddi!

[ARANTXA] Maddi deitzen da?! Bai polita! Zaharrena mutikoa zen, ezta?

[XABI] Aitor! 5 urte beteko ditu abenduan.

[ARANTXA] Gizontxo bat eginda egongo da honezkero...

*Kafesnea ematen diete. Mahairantz zuzentzen dira.*

[XABI] Eta zu? Ez al zara animatu?

[ARANTXA] Ez ba...

[XABI] Igorrek ez du nahi.

[ARANTXA] Urtebete bada utzi genuela... Baina ez. Ez zuen nahi.

[XABI] Atx... Sentitzen dut. Ez nekien ezer... Tipo majoa zen Igor... Norbaitekin zaude orain?

[ARANTXA] Tipo majoa DA.

[XABI] Tipo majoa DA. Arrazoi. Pozten naiz ondo bukatu duzuela jakiteaz (*Arantxari eskutik heltzen dio*). Ondo bukatu duzue, ezta? Beti ez da erraza izaten...

[ARANTXA] Ez ditut ulertzen elkar akabatu beharrean banantzen diren bikote horiek... Ez ditut sekula ulertu. Zuk bai? Ja ez dugu elkar maite, bale, baina izan dezagun tratu adeitsua, ezta? Hain zaila al da? Zer gutxiago hainbat urtez GUZTIA konpartitu eta gero... Errespetu kontua da, joder. Ez duzu uste?

[XABI] Guk ondo bukatu genuen!

[ARANTXA] Zorionez!

[XABI] Eta, orain? Zer plan duzu? Garaiz zaude oraindik.

[ARANTXA] Zertarako?

[XABI] Umetxo bat izateko. Inoiz ez da berandu, nahi izatekotan. Aita egokia topatu behar... Tira, gaur egun... Ezta hori ere! Zuk baduzu aita egokirik?

[ARANTXA] Honezkero bigundu zait arroza niri!

[XABI] Honezkero?! Ez zinen lehendabizikoa izango! Ezta azkenengoa ere! Zenbat dituzu? Berrogeita bi, ezta?

[ARANTXA] Ez da hori. Ez hori bakarrik. Alde egin dit neukan amatasun-sen apurrak. Bueno, eta Imma zer moduz?

[XABI] Ondo, ondo. Ondo gaude denok.

[ARANTXA] Beti bezain lirain, ezta? Ama izanda ere ez zuen galduko bere edertasunaren laurdenik.

[XABI] Ba egia esanda, ez du galdu, ez. Kirol dezente egiten dugu...

[ARANTXA] Baduzue meritua! Bi umerekin ez du samurra behar denbora ateratzea...

[XABI] Ez dagoenetik ateratzen duzu. Informatikako enpresa horretan segitzen duzu zuk? Nola zen?

[ARANTXA] Saretek.

[XABI] Erdi jefa izango zara, honezkero.

[ARANTXA] Proiektu burua naiz.

[XABI] Ikusten! Joder, zorionak! Gustura zaude, ezta?

[ARANTXA] Tira, ohitu egin naiz.

[XABI] Lanera, ohitu?

[ARANTXA] Gizonei aginduak ematera. Gogaikarria da.

[XABI] (*Barre-algara batek ihes egiten dio*) Ez da horrenbesterako izango...

[ARANTXA] Begira. Batzuek uste dute ez dudala behar adinako mailarik. Besteek, larregi agintzen dudala. Eta gehienek, gorrotatu egiten nauten arren, titietara begiratzen didate

bilera bakoitzean. Nazkagarria da, joder. Zergatik zarete hain transparenteak?

[XABI] (*Barrez*) Desira sana da, neska!

[ARANTXA] Zuen ez dakit zer den, baina sana behintzat ez da.

[XABI] Gogorra zara gizonokin. Hainbeste min egin al dizugu?

[ARANTXA] Dezente.

[XABI] Nik ere bai?

[ARANTXA] Zuk ez, Xabi. Badakizu ezetz. Jakin beharko zenuke.

[XABI] Denbora asko pasatu da, dena zalantzan jartzen duzu horrenbeste urte eta gero. Ja ez dakit zergatik moztu genuen ere, zuk utzi ninduzun, ezta? Zergatik utzi ninduzun? Bikote ona egiten genuen... Azaldu al zenidan inoiz? Ez naiz gogoratzen...

[ARANTXA] Ez al da beranduegi horretaz hitz egiteko?

[XABI] (*Barrez*) Hamar urte soilik pasatu dira eta!

[ARANTXA] Hamabi! 30 urte bete berriak nituen, ondo gogoratzen naiz.

[XABI] Hain gazteak ginen...



[ARANTXA] Eta zuk, zer? Kazetari lanetan jarraitzen al duzu? Ja ez dut Bizkaiko egunkaririk *zintzoena* irakurtzen... Itolarria ematen zidan...

[XABI] Ba zuretzako kalte.

[ARANTXA] Kulturaren zaude?

[XABI] Euskal Herriko politikan.

[ARANTXA] Euskadikoan, esan beharko zenuke. Isuna jarriko dizute. Ez al zenuen kultura nahiago?

[XABI] Atalburua behar zuten politikan, eta... Nik ez nuen hartu nahi, baina badakizu gauza hauek nola diren...

[ARANTXA] Atalburua! Zorionak! Zaila izango zaizu taldearen ildo editoriala mantentzen. Edo ez! Auskalo... Inor ez omen da aldatzen gure adinean, baina agian zu...

[XABI] Kanpotik ikusten dena baino askatasun gehiago daukagu.

[ARANTXA] (*Barrezka*) Ziur nago!

*Trago bana osten diete euren katiluei.*

*Irribarre egiten du Arantxak.*

[XABI] Zer?

[ARANTXA] (*Irribarrea galdu gabe*) Ezer ez.

[XABI] Zer?!

[ARANTXA] Soinutxo hori...

[XABI] Zein soinu?

[ARANTXA] Edatean egiten duzuna...

[XABI] Ez dut soinurik egiten!

[ARANTXA] Oso txikia da, baina...

[XABI] Baina zer?

[ARANTXA] (*Irribarrez*) Ezin nuen jasan...

[XABI] (*Irribarrez*) Baina zer diozu?! Eta orain esaten al didazu?

[ARANTXA] Ezin nuen jasan, sentitzen dut.

[XABI] Ezin zenuen jasan!

[ARANTXA] Utz dezagun, ez da horrenbesterako.

*Hurrupa bat kafesne hartzen du Xabik,  
ahalik eta soinu gutxien egiten saiatuz.*

[XABI] Hobeto?

[ARANTXA] Uztazu. Txantxetan ari nintzen.

[XABI] Horregatik utzi al ninduzun? Ez zenidan inoiz esan nire edateko moduak gogaitzen zintuela!

[ARANTXA] Mesedez, Xabi!

[XABI] Zer izan zen, ba?

*Arantxak esku-ahurrak erakusten dizkio.*

[XABI] (*Irribarre faltsuarekin*) Ez. Benetan. Orain  
kuriostatea sartu zait. *Eske* ez naiz gogoratzen. Zer izan  
zen? Zergatik utzi ninduzun?

[ARANTXA] Ni ere ez naiz gogoratzen, Xabi.

[XABI] Zerbaitengatik izango zen...

[ARANTXA] Auskalo. Gauza txikien metaketa bat...

[XABI] Kafea edatean egiten dudan soinu nazkagarri hori  
bezalako gauza txikiak?

*Neke eta gogaimen keinu bat egiten du  
Arantxak. Bekainak altxatzen ditu Xabik, bi  
eskuak erakustearekin batera.*

[XABI] Benga, egin ezazu memoria pixka bat.

[ARANTXA] Benetan?!

[XABI] Bai! Jakin egin nahi dut! Zer gauza txiki ez  
zitzaizkizun gustatzen?

[ARANTXA] Ez dakit nik honek zerbaiterako...

[XABI] Benga, bota! Zer axola dio jada! Zuk zure bizitza  
duzu, nik neurea. Auskalo noiz topatuko garen berriz...

[ARANTXA] Ziur zaude? Beharbada zuri...

[XABI] Bota! Bota lasai!

[ARANTXA] Gorroto nuen emakumeak begiratzeko zenuen modu hura.

[XABI] Zer?! Zein modu?

[ARANTXA] Modu hori...

[XABI] Nola begiratzeko nien, ba?

[ARANTXA] "Gustura jango nizuke txirla" esanez bezala.

[XABI] ¡Venga ya!

*Sorbaldak altxatzen ditu Arantxak.*

[XABI] Zuk ere begiratzeko zenien gizonaei...

[ARANTXA] Baina ez horrela.

[XABI] Ezetz?! Andonirekin dantzan ikusten zaitut oraindik, noren ezkontza zen... Zabaletarena! Urtu beharrean zeunden!

[ARANTXA] Bai zera!

[XABI] Mito bat da hori. Mito bat da gizonok emakumeak gehiago desiratzen ditugula, emakumeek gizonak baino.

[ARANTXA] Gauza bat da desiratzea, eta bestea oso diferentea begirada bakoitzarekin larrua jotzea.

[XABI] Kontua da zeinek begiratzeko dizun... Kristoren mutil katxarroa bada, bost axola. Brad Pitt! Brad Pittekin hala begiratzeko gero, zer! Hori bai, zakurraren ipurtzuloa baino itsusiagoa baldin bada morroia, erasotzaile bat da!

[ARANTXA] Horixe zen bestea.

[XABI] Zer?

[ARANTXA] Beti zuk arrazoi. Ez dizut ukatuko: dialektikan bikaina zinen. Bikaina zara. Baina dena ez da dialektika, Xabi. Ez dut irabazi nuen eztabaidarik gogoratzen, eta beti ez zenuen zuk arrazoi izango...

[XABI] Nik ez dut irudipen hori.

[ARANTXA] Ba hala izaten zen.

[XABI] Ba barkatu...

[ARANTXA] Barkatuta.

[XABI] Berandu samar, baina barkatu.

[ARANTXA] Inoiz ez da berandu, nahi izatekotan.

*Irribarre egiten du Xabik. Elkarri begira  
geratzen dira une batez.*

[ARANTXA] Nik ere izango nituen gustatzen ez zitzaizkizun gauzak.

[XABI] Ez.

[ARANTXA] Ez?

[XABI] Ez... Ez... Ez dakit. Ez naiz gogoratzen... A bai!

[ARANTXA] Ikusten! Zer zen.

[XABI] Zure aita.

*Barre-algara bat egiten du Arantxak.*

[XABI] Zure aita aguantatu beharra peaje handi samarra zen,  
e...

[ARANTXA] Baina nire ama ze maja? Asko maite zintuen. Asko  
maite zaitu.

[XABI] A! Eta kubiertoena!

[ARANTXA] Kubiertoena?!

[XABI] Bai. Kubiertoak gordetzeko zeneukan modua!

[ARANTXA] Sorpréndeme.

[XABI] Mundu guztiak badaki, koilara-sardexka-labana, hori  
dela ordena! Berdin dio ezkerretik eskuinera, edo  
eskuinetik ezkerredera... Bueno, egia esan, hobe ezkerretik  
eskuinera baldin bada. Baina zuk koilara sardexkaren eta  
labanaren artean jartzen zenuen! Erdian! Nori okurritzen  
zaio!

[ARANTXA] (*Barrez*) Tokatzen ziren bezala jartzen nituen.

[XABI] Gaizki!

[ARANTXA] Ba barkatu.

[XABI] Ba barkatuta.

*Kafesnari trago bat hartzen dio Xabik,  
mugimenduak esajeratuki mantso eginez, eta  
soinurik ez egiteko ahalegin betean.*

*Irribarre egiten du Arantxak.*

[ARANTXA] Pailazo halakoa! Segitzen al duzu idazten?

[XABI] Noiz, baina! Ez dut denborarik...

[ARANTXA] Eta ahizpa bikiei buruzko hura?

[XABI] Gogoratzen zara, e?

[ARANTXA] Zientzia fikziozkoa zen, ezta? Hasiera indartsua zeukan.

[XABI] Hasiera. Horixe bakarrik idatzi nuen.

[ARANTXA] Berreskuratu egin beharko zenuke.

[XABI] Ez dakit nik beranduegi ez ote den.

[ARANTXA & XABI biak batera] Inoiz ez da berandu, nahi izatekotan.

*Begietara so egiten dio Xabik, irribarrez,  
eta isilik geratzen dira une batez.*

[XABI] Momentu onak ere igaro genituen.

[ARANTXA] Asko.

[XABI] Bidaiak!

[ARANTXA] Bidaiak mundialak izan ziren.

[XABI] Firenze!

[ARANTXA] Firenze!

[XABI] Gogoratzen duzu? Un café machiatto! Machiatto!!

*Barrez hasten dira biak.*

[XABI] Eta Istambul?

[ARANTXA] Ai Istambul! Ze ederra!

[XABI] Grand Bazarren ez zuten zu bezalako tratugilerik ezagutuko denbora askoan!

*Barrez lehertzen da Arantxa.*

[XABI] Mexiko!

[ARANTXA] Nire bidaiarik kuttunena!

[XABI] Frida Khalo, Diego Rivera, piramideak, hondartzak, Oaxaca, DF-ko zoramena...

[ARANTXA] Ahaztezina!

[XABI] Eta gogoan al duzu palazio *presidencialean* nola ibili ginen? Turista guztiak guri begira jarri genituen...

*Irribarre egiten du Xabik, begirada galdua.*

*Oroitzen ari da. Argi-aldaketa. Bals bat entzuten da. Xabi eta Arantxa zutik*



*jarrita, dantzatzen hasten dira.*  
*Irribarretsu hasieran jira-bira etenik*  
*gabekoan, baina geroz eta intimoago*  
*bihurtzen da pixkanaka euren arteko dantza-*  
*saioa, eta elkarri pega-pega eginda*  
*bukatzen dute, bals baten ordean, balada bat*  
*dantzatzen ariko balira legez. Abestia*  
*bukatzerara doanean, banandu egiten dira bi*  
*gorputzak, itsatsita egotetik, eskuetatik*  
*helduta egotera pasatzen dira, eta hortik,*  
*oso mantso, eskuak ere banantzerara: esku-*  
*ahurrak lehendabizi, hatzak gero, hatzen*  
*puntak banantzen dituzte azkenik. Penaz,*  
*Xabik. Ez horrenbeste Arantxak. Argiak*  
*aldatzen dira, berriz. Eseri egiten dira*  
*Xabi eta Arantxa.*

[XABI] Eta gogoan al duzu palazio *presidencialean* nola  
ibili ginen? Turista guztiak guri begira jarri genituen...

[ARANTXA] Lotsarik ez batere.

[XABI] Bost axola dena.

[ARANTXA] Bidai ederrak egin genituen, bai.

[XABI] Baina bidaiak bakarrik ez, e (*Xuxurlan hitz egiten*  
*du*) Poliki moldatzen ginen ohean...

[ARANTXA] Ondo moldatzen ginen, bai...

[XABI] *OSO* ondo moldatzen ginen...

*Irribarre egiten du Arantxak, baina burua  
pixka bat okertuz.*

[XABI] Zer?! Ez al ginen ba ondo moldatzen?!

[ARANTXA] (*Konbentzimendurik gabe*) Ondo moldatzen ginen.

[XABI] Baina...?

[ARANTXA] Ezer ez.

[XABI] Benga. Dena jakin nahi dut honezkero.

[ARANTXA] Berdin dio...

[XABI] Botaaaaa.

[ARANTXA] Seguru?

[XABI] Baietz ba!

[ARANTXA] Ba, zera... Sotoan jarduten zenuenean (*mingaina  
ateratzen du Arantxak, ezker-eskuin begiratu ostean*),  
honekin...

[XABI] Maisua naiz eta!

[ARANTXA] Ez zenuen gaizki egiten, baina...

[XABI] Baina zer?

[ARANTXA] Sototik bueltan muxu ematera etortzen zinen...

Muturra garbitu gabe!

[XABI] Baina sotoa... Esan nahi dut... Ardo hura... Zurea zen!

[ARANTXA] Badakit, baina ez zitzaidan gustatzen...

[XABI] Zure ardoa! Zure sotoko ardoa!

*Isilunea.*

[XABI] Zergatik ez zenidan inoiz ezer esan?

*Sorbaldak altxatzen ditu Arantxak.*

[XABI] Esan egin behar izan zenidan.

*Isilunea.*

[ARANTXA] Erosi egingo dut.

[XABI] Zer.

[ARANTXA] Zure liburua. Bukatzen duzunean. Bukatu egingo duzu!

[XABI] Oparitu egingo dizut. Egunen batean bukatzen baldin badut, oparitu egingo dizut.

[ARANTXA] Dedikatuta nahi dut, e.

[XABI] Bere sotoko ardoa gustatzen ez zaion nire lagun Arantxari.

*Nazka-imintzio bat itzurtzen zaio*

*Arantxari.*

[XABI] Txantxa da. Ea, utzidazu pentsatzen... Zientzia fikziozko emakumeari.

[ARANTXA] Gehitxo da hori niretzat.

*Isilunea.*

[XABI] Hau poza, joder. Zenbat urte elkar ikusi gabe. Hiru?

[ARANTXA] Halako bat...

[XABI] *Eske* berdin-berdin zaude, e.

[ARANTXA] Zu ere bai.

[XABI] Ez, ni ez. Zu bai. Oso guapa zaude.

[ARANTXA] Eskerrik asko.

[XABI] Joder, eta pentsatzea zaparrada hori hasi ez balitz ez genuela topo egingo! Beste hiru urte egongo ginen, igual, elkar ikusi gabe... Hiru urte gehiago jakin gabe nire edateko modua jasanezina zitzaizula...

[ARANTXA] (*Irribarrez*) Beste hiru urte kubiertoak nola jartzen diren ikasi gabe!

[XABI] Zortea izan dugu, e.

[ARANTXA] Izugarritzkoa. Etxera iristen naizenean, horixe da egingo dudan lehenengo gauza: kubiertoak ondo jartzea.

[XABI] (*barrez*) *Eske* kasualitatea izan da, e.

[ARANTXA] Kasualitate handia. Biok taberna bera aukeratzea aterpe hartzeko ere!

[XABI] Patua! Patuak elkartu gaitu!

[ARANTXA] Hori izango da.

[XABI] A zer zortea izan dugun.

*Xabik eskutik heltzen dio Arantxari.*

*Arantxa harrituta geratzen da apur bat.*

[ARANTXA] Zorte handia, bai.

[XABI] Hementxe, zu eta ni, ez dakit zenbat urte geroago... Berriz elkarrekin. Eta hain gustura! (*Irribarre behartua egiten du Xabik*) Bukaera on bat eman beharko genioke enkontru honi, ez duzu uste?

[ARANTXA] Bukaera on bat?

[XABI] Bai, badakizu... Garai zaharrak oroitzeko.

*Begiak txilotzen ditu Arantxak.*

[XABI] (*Barra aldera begiratzen du, eta gero Arantxari, bekainak altxatuz, xuxurlan*) Hotel txiki bat dago hemen ondoan... Ez da oso dotorea, baina... (*Irribarrez, eta xuxurlan*) Zin degizut sotoa bisitatzen badut ez dizudala musurik emango...

*Harriduratik amorrura, amorrutik nazkara,  
eta nazkatik akidurara pasatzen da Arantxa.  
Aurrez aurre begiratzen dio Xabiri, hitz  
erdirik esan gabe.*

*Xabi kafesne katilua hartu eta handik  
edaten saiatzen da, baina ez da geratzen  
tantarik. Albo batera so egiten du Xabik,  
Arantxaren begiradari iskin eginez.*

[XABI] Ez da horrenbesterako, neska! Norbaitekin zaude?!  
Hori da?! *Joder, eske* garrantzi handiegia ematen diezue  
emakumeek sexuari.

[ARANTXA] Garrantzi handiegia ematen diogula *GUK* sexuari?!  
Handia bota duzu, Xabi.

[XABI] Esan nahi nuena da...

[ARANTXA] *BADAKIT* zer esan nahi zenuen. *Joder, eske*  
ikaragarria da... Ikusten? Berriz ere zuk arrazoi: *INOR* ez da  
aldatzen. *Inor* ez da *SEKULA* aldatzen. Zu ez behintzat.

[XABI] *Eske* Immarekin ez dut...

[ARANTXA] (*Haserre*) Bost axola zer egiten duzun Immarekin,  
edo hobeto esanda, zer egiten *EZ* duzun!

[XABI] Barkatu... Nik ez nuen...

[ARANTXA] Joder, Xabi. Hain gustura geunden... Zergatik izorratu behar duzue beti dena?

[XABI] Sentitzen dut...

*Arantxak mugikorra ateratzen du poltsatik eta begiratu bat ematen dio.*

[ARANTXA] Zer berandu den... Joan beharra daukat.

*Arantxak poltsatik diru-zorroa ateratzen du.*

[XABI] Ordainduko dut nik.

*Xabiri kasu zipitzik egin gabe, bi eurokoa uzten du Arantxak mahai gainean, eta zutitu egiten da gero. Xabi ere bai, segidan.*

[ARANTXA] Agur, Xabi.

[XABI] Agur, Arantxa. Laster arte.

*Arantxak bekain bat altxatzen du "ez dut uste" esanaz bezala, baina hala ere bi musu ematen dizkiote elkarri. Arantxa aterantz zuzentzen da.*

[XABI] Arantxa! (*Buelta ematen du Arantxak*). Ez ahaztu aterkia.

AMAIERA